

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko ekainaren 5etik ekainaren 9ra

INGURU MAKROA:

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZren BILERA

EBZren aurreikuspenen eguneratzea

	2017		2018		2019	
	Actual	Anterior	Actual	Anterior	Actual	Anterior
Crecimiento	1,9%	1,8%	1,8%	1,7%	1,7%	1,6%
Inflación	1,5%	1,7%	1,3%	1,6%	1,6%	1,7%

Datuaren analisia

Aste honetan, EBZk bilera egin du. Erakundeak ez du bere diru-politikan aldaketarik egin, baina interes-tasa eta arriskuei buruzko mezua pixka bat aldatu du. Draghik ez zuen interes-tasa "baxuagoi" buruzko aipamenik egin, eta "urritzen ari diren arriskuak" esan beharrean, "arrisku orekatuak" terminoa erabili zuen. Bestalde, EBZren erosketen programa indarrean egongo da 2017ko abendura arte, edo denbora luzeagoz, beharrezkoa balitz. Azkenik, erakundeak urte honetarako eta hurrengo bietarako euroguneko BPGd-aren aurreikuspenak hamarren bat igo zituen, martxoarekin alderatuta. Hala ere, 2019ra arteko inflazio aurreikuspenak beherantz berrikusi zituen.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuen ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak bultzatu beharko ditu ere, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ISM ZERBITZUAK



Datuaren analisia

Maiatzean, manufakturenak ez diren sektoreen ISMa pixka bat apaldu zen (56,9 vs 57,5), baina nahiko maila hedakorretan mantendu zen, azken sei hiletako batez bestekotik eta oraingo ziklotik gora.

Maiatzean, sail gehienak apaldu ziren: behera egin zuten jarduerak (60,7 vs 62,4), eskaerek (57,7 vs 63,2) eta merkataritza-fluxuekin zerikusia daukaten sailek. Alde positiboan, enplegua nabarmendu behar da (57,8 vs 51,4), 2015aren erdialdetik maximoetan dagoena.

Adierazlearen azalpena


Manufakturena ez den ISM indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboiei egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jarduera-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erosketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BPGd

PIB	CONS.	INVERS.	INVENT.	G.PUBL.	S.EXT.
0,3%	0,2%	0,2%	-0,1%	0,0%	0,1%



Datuaren analisia

Urtarrila eta martxoa bitarteko barne produktu gordinaren hazkundera beherantz berrikusi zen, urte arteko % 1eraino, 1,2 portzentaje-puntuako murrizketa maiatzean argitaratutako atariko datuarekin alderatuta. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, munduko hirugarren ekonomia % 0,3 handitu zen, hasieran aurreikusitako % 0,5 baino bi hamarren gutxiago, baina, hala ere, jarraian izan duen bosgarren igoera da, hiruhilekoen arteko terminoetan.


Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI / IPP



Datuaren analisia

Maiatzean, urte arteko inflazio-tasa % 1,5ekoa izan zen, aurreko hileko % 1,2aren ondoren, eta urtarriletik izan duen mailarik altuenera iritsi zen.

Zatika begiratuta, elikagaien prezioak % 1,6 egin zuen behera maiatzean, eta elikagaiak ez diren produktuak, aldiz, % 2,3 garestitu ziren. Zerbitzuek ere % 2,9 egin zuten gora.

Bestalde, industria-ekoizpenaren prezioek % 5,5eko urte arteko igoera izan zuten maiatzean, aurreko hilean % 6,4 igo ondoren. Handizkako inflazioak zortzi hilabetez izandako gorako joera luzatu da datu horrekin, 54 hilabetez jarraian jaitsierak izan ondoren.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du. Ekoizlearentzako prezioen indizea inflazioaren datuaren jarraipena egiteko erabiltzen den adierazle bat da. Ekoizleen eskutik atera bezain laster, ekoizleek erosi eta saldutako ondasun eta zerbitzuen prezioen bilakaera neurtzen du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
06/12	Japonia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 2.2
06/13	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1.9
06/13	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.7
06/13	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	85.0
06/13	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
06/13	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	21.7
06/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10.7
06/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.4
06/14	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
06/14	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.5
06/14	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
06/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	% 0.5
06/14	Eurogunea	Urte arteko enplegua	--
06/14	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
06/14	Estatu Batuak	Urte arteko KPIa	% 2.0
06/15	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 0.8
06/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	22.0b
06/15	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.250
06/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	5.0
06/15	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	241k
06/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.2
06/15	Estatu Batuak	Etxebizitzaren merkatuaren NAHB indizea	70
06/16	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.4
06/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 3.9
06/16	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	97.1
06/16	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	113.2
06/16	Estatu Batuak	Aurreikuspenak Mich. U.	87.6

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Itxiera mistoak munduko burtsa nagusietan, gertakari politiko eta instituzionalak jositako aste batean. European, EBZren bilera egin zen. Erakundeak ez du bere diru-politikan aldaketarik egin, baina interes-tasa eta arriskuei buruzko mezua pixka bat aldatu zuen. Draghik ez zuen interes-tasa "baxuagoi" buruzko aipamenik egin, eta "urritzen ari diren arriskuak" esan beharrean, "arrisku orekatuak" terminoa erabili zuen. Horrez gain, urte honetarako eta hurrengo bietarako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak hobetu zituen, baina jaitsi egin zituen 2019ra arteko inflazioarenak. Bestalde, Italian, hauteskundeak erreformatzeko akordioa hautsi egin zen, eta merkatuak erantzun positiboa izan zuen, apurketa horren ondorioz, hauteskundeak udazkenera aurreratzeko aukerak murriztuko zirelakoan. Erreskuma Batuan hauteskundeak egin ziren. Theresa Mayren alderdiak lortu zuen garaipena, baina erabateko gehiengoa galdu zuen. Horrenbestez, gobernu britainiarraren inguruko zalantzak handiagoak dira orain, eta herrialdea EBtik ateratzeko negoziazioak zailagoak. Enpresen arloan, Banco Popularraren arazoan ondorioz, erakundeak Santanderri euro bateko prezio sinbolikoaren truke saltzea erabaki zen.

ERRENTA FINKOIA:

Erresuma Batuko hauteskundeak eta EBZren mezu ez hain inflazionistek beheranzko mugimenduak eragin zituzten Europako tasetan. Hamar urterako Alemaniako bonuaren errentagarritasunak 1 op egin zuen atzera, % 0,26raino; Espainiako bonuan, berriz, mugimenduak nabarmenagoak izan ziren, eta hamar urterakoak 13 op egin zuen atzera, % 1,44raino, eta arrisku-prima, beraz, 12 op murriztu zen, 118 puntuetaraino. AEBetan, 10 urterako bonuaren errentagarritasuna 4 op igo zen, % 2,20raino. Kredituaren diferentzialak, aldiz, estutu egin ziren.

DIBISAK/LEHENGAIK:

EBZren mezuek euroaren gorako bidea geldiarazi zuten, eta astearen amaieran, % 0,64 jaitsi zen dolarraren aurrean. Liberak % 0,49ko balioa galdu zuen euroaren aurrean, Erresuma Batuko egoera politiko lausoaren ondorioz. Lehengaiei dagokienez, petrolioaren prezioak % 3,65 egin zuen behera. Espero zena baino inbentarioen datu handiago batek AEBetan eta Saudi Arabiak eta beste herrialde batzuek Qatarrekin harreman komertzial eta diplomatikoak apurtu eta LPEEren akordioak arriskuan jartzeko beldurrak eragina izan zuten kotizazioan. Urreak, azkenik, erakarmena galdu eta % 0,98 egin zuen atzera.

INDICES	PRECIO	%Variación	
		Semanal	2017
MSCI WORLD (Local)	1.472,56	-0,47	7,94
IBEX 35	10.978,30	0,66	17,39
DJ EURO STOXX 50	3.586,07	-0,16	8,98
DJ STOXX 50	3.210,07	-0,74	6,63
FTSE	7.527,33	-0,27	5,38
S&P 500	2.431,77	-0,30	8,62
Dow Jones	21.271,97	0,31	7,64
NASDAQ	6.207,92	-1,55	15,32
NIKKEI 225	20.013,26	-0,81	4,70
MSCI EMERGENTES (Lo	54.127,91	0,35	13,59
MEXBOL	49.081,73	-0,48	7,53
BOVESPA	62.210,56	-0,48	3,29
SHANGHAI	3.307,72	1,70	1,79
Rusia Rts Moscú	1.041,49	-0,43	-9,62

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,73	-0,01	0,04
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,31	-0,05	-0,03
EE.UU 2 AÑOS	1,33	0,05	0,15
ALEMANIA 10 AÑOS	0,26	-0,01	0,06
ESPAÑA 10 AÑOS	1,44	-0,13	0,06
EE.UU. 10 AÑOS	2,20	0,04	-0,24
ALEMANIA 30 AÑOS	1,13	0,00	0,19
ESPAÑA 30 AÑOS	2,79	-0,11	0,17
EE.UU. 30 AÑOS	2,86	0,05	-0,21
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	59,14	-2,82	-12,90
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	241,33	-7,50	-47,37

Divisas	Nivel	%Variación	
		Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,12	-0,64	6,17
Yen / Euro	123,72	-0,62	0,55
Libra/ Euro	0,88	0,49	2,86

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
----------------	-------	--------------------	------------

Petroleo (Brendt)	47,55	-3,65	-14,19
Oro	1.266,63	-0,98	9,92

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.